



EBAZPENA, 2014ko otsailaren 21ekoa, Euskadiren Estatu Batuetako ordezkariarena; honen bidez, eskabideak aurkezteko epea luzatzen da Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzaren zerbitzura lan egiteko Enpresa Teknikari / Merkataritza Teknikari / Market Analyst lanpostua eta Idazkari/administrative assistant lanpostua hornitzeko deialdian.

Euskadiren Estatu Batuetako ordezkariaren otsailaren 12ko Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzaren zerbitzura lan egiteko Enpresa Teknikari / Merkataritza Teknikari / Market Analyst lanpostua eta Idazkari/administrative assistant lanpostua hornitzeko.

Ebazpen eranskinean jasotako oinarrien 4.3 idatz-zatian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea 2014ko otsailaren 17tik martxoaren 3rako izango da.

Oinarrien 4.2 idatz-zatian aurreikusitako iragarpena —deialdia New Yorken hedapen handiena duen egunkarian argitaratzea, alegia— ez da 2013ko otsailaren 23a arte egingo; beraz bidezkoa da eskabideak aurkezteko epea 2014ko martxoaren 10a arte luzatzea.

Horregatik guztiarengatik, hauxe,

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. 2014ko martxoaren 10a arte luzatzea eskabideak aurkezteko epea Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzaren zerbitzura lan egiteko Enpresa Teknikari / Merkataritza Teknikari / Market Analyst lanpostua eta Idazkari/administrative assistant lanpostua hornitzeko deialdian. Horiek hornitzeko deialdia Euskadiren Estatu Batuetako ordezkariaren 2014ko otsailaren 12ko Ebazpenaren bitartez egin zen.

ANDER CABALLERO
Euskadiren Estatu Batuetako ordezkaria